

Euskal AEn jaioen izen ugarienak, Ane eta Markel

Ama atzeritarrek ere euskal izenak aukeratzen dituzte

1996tik hona, Ane da neska-izena aukeratzeko orduan gurasoen kutunena, Eustaten arabera, Euskal AEn 2012-2014 artean jaiotako izenez ari delarik. Ondoren June, Irati, Nahia, Uxue, Izaro.

Mutikoentzako izen ugarienak: Markel, Jon, Ander. Gero Oier, Iker, Ibai.

2012-2014 eta 2010-2012 aldiak konparatuz gero, Elene eta Martina sartzen dira aurreneko 25en artean, eta irten Eider eta Nerea. Alex eta Hugo sartu, irten Aritz eta Urko.

Erregistro Zibilak gehienez bi izen bakun edo konposatu bat jartzeko aukera ematen du. Ehun izen ugarienen artean ez dago konposaturik bat ere; garai batean oso-oso ohikoak ziren.

Izen bereko grafia ezberdinak

Euskal izenak dira nagusi, batzuetan bi grafia agertzen direlarik: Ane-Anne, Itxaso-Itsaso, Leire-Leyre, Jon-Ion, Aritz-Haritz.

Ama atzeritarrek ere euskal izenak aukeratzen dituzte, baina badago alderik rankin orokorraren aldean. 5 neska-izen ugarienen arteko 3 – Ainhoa, Naiara, Leire- euskal izenak dira; zerrendako aurrenekoa Sara da, hebrearra; bigarren Sofia, grekoa. Mutiko-izenetan Ander bigarren eta Iker laugarren, euskal izenak; aurrena Adam, hebrearra; hirugarren Mohamed, arabiarra; bosgarren David, hebrearra.

Amen artean Ainhoa nagusi; aiten artean Aitor

Hona hemen 2012/2014 artean ama izan zirenen izen ugarienenak: Ainhoa, Leire, Nerea, Maria, Amaia, Ainara, Laura, Sonia, Marta, Iratxe. Emakume hauek gehienak 1973-1983 artean jaio ziren; 3 izen ugarienenak euskal izenak ziren, baina izen gaztelarrak oraindik asko erabiltzen ziren, batez ere Mariarekin konposatuak.

2012/2014 artean aita izan zirenen izen ugarienenak: Aitor, Javier, David, Iker, Asier, Iñigo, Gorka, Mikel, Jon, Iñaki. 1972-1982 artean jaiotako gizonak ziren gehienak; izen konposatuak gutxituz, euskal izenak gehituz.

1. Taula: Euskal AEn jaioen 25 izen ugarienak. 2012-2014

	Neskak			Mutilak		
	Izena	Maiztasuna	%	Izena	Maiztasuna	%
1	Ane	904	3,16	Markel	809	2,66
2	June	709	2,48	Jon	758	2,49
3	Irati	620	2,17	Ander	727	2,39
4	Nahia	601	2,10	Oier	664	2,18
5	Uxue	482	1,69	Iker	655	2,15
6	Izaro	474	1,66	Ibai	628	2,06
7	Nora	459	1,61	Aimar	616	2,02
8	Lucía	422	1,48	Unai	593	1,95
9	Laia	406	1,42	Mikel	582	1,91
10	Haizea	398	1,39	Julen	541	1,78
11	Malen	382	1,34	Unax	503	1,65
12	Sara	382	1,34	Eneko	446	1,47
13	Paula	378	1,32	Danel	420	1,38
14	Naia	371	1,30	Beñat	392	1,29
15	Maddi	364	1,27	Asier	373	1,23
16	Noa	363	1,27	Oihán	369	1,21
17	Maialen	356	1,25	Martin/Martín	368	1,21
18	Iraia	327	1,14	Alain	354	1,16
19	Leire	321	1,12	Xabier	333	1,09
20	Naroa	274	0,96	Amets	303	1,00
21	Enara	271	0,95	Aner	297	0,98
22	Martina	255	0,89	Hugo	289	0,95
23	Elene	236	0,83	Ekain	264	0,87
24	Garazi	232	0,81	Álex	262	0,86
25	Aitana	219	0,77	Aitor	252	0,83

Iturria: Eustat. Jaiotzen estatistika

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62

Euskal AEko jaiotzen estatistikari buruzko prentsa-ohar gehiago

Euskal AEko jaiotzen estatistikari buruzko datu-bankua